

II. Mundu Gerraren amaieraren omenez egun bateko su-etena errespetatu dute Txetxenian

Aurrebaldintzarik gabeko bake negoziatioak eskaini dizkio Maskhadovek Moskuri

Erredakzioa / Donostia

Errusiako Armadako agintariek eta Txetxeniako gerrillaburuek 24 orduko su-etena bat iragarri zuten atzo, II. Mundu Gerraren amaierako ospaki-

zunen karietara. Alabaina, bi aldeek ez diote su-etena honi erranahi berdina eman. Xamil Basaiev gudalburu txetxeniarraren arabera, «maiatzaren 9a da nazismoaren aurka borrokatu garen herri guztien jai eguna».

Gennadi Troxev jeneral errusiarrek, ordea, gogorarazi zuen Errusiako Armadak ez duela Txetxeniatik alde egingo «gaizkile guztiak —hauen artean Basaiev bera— ezerezean utzi arte».

KAVKAZ-CENTER, gerrilla txetxeniarraren albiste guneak atzo jakiterat eman zuten, Aslan Maskhadov Txetxeniako presidenteak negoziaketa proposamen bat egin dio Vladimir Putin Errusiako agintari nagusiari, gerra hila-bete bateko epean geldiarazteko asmoarekin.

Ohar honek zehazten zenez, Maskhadoven eskaintza honek ez du inolako aurrebaldintzarik jartzen. Alabaina, albiste gune horretan bertan, Basaiev gudalburu txetxeniarrak, berriz, «ultimatuma» jarri zion Kremlinari, Txetxeniako gerra geldidetzen dezan maiatza bukatu baino lehen. Ohartarazte honi Moskuk arretarik eman ezean, «txetxeniarrak gerrillariok guduka gunetzat hartuko dugu Ipar Kaukasoko esparrua oro eta eraso egin digutenekin akabatuko dugu», gaineratu zuen Basaievek.

Gudalburuak, haatik, 24 orduko su-etena bat agindu duela zehaztu zuen, zeren eta haren iritzian, «maiatzaren 9a da nazismoaren aurka borrokatu garen herri guztien jai eguna». Basaievek gorai-patu zituen II. Mundu Gerran bizia galdu zuten gudukariak eta salbu geratu ziren beterranoak, hauek «mundua zaindu egin baitzuten faxismoaren ideologia gorrotogarritik». Haatik, gerrillaburu txetxeniarrak gehitu zuenez, «gaur egun *mujahidin*-ak borrokatzen gara gizadiari mehatxu egiten dion beste lazkeria baten kontra, hau da errusiar nagusikeriaren kontra». Basaieven ustez, azkenik, Putin noraezean aurkitzen da eta ez ditu gauzak menderatzen, «bere jeneralek euren nahikeriak eta errealitatea nahasten baitituzte».

Troxev gerrillariei amore emateko aholkatu die

Hitz gogor hauei erantzun modu bezala, Txetxeniako gerran diharduten tropa



II. Mundu Gerrako beterranoak garaipenaren 55. urteurrena ospatzen, atzo, Moskuko Gorki parkean.

JURI KOTXETOV / EPA

Beteranoak eta oraingoak desfilean

II. MUNDU GERRAREN amaierako 55. urteurrena ospatzeko, 10.000 gudukari beterranoak eta oraingo soldaduek elkarrekin desfilaratu zuten atzo Moskun, Vladimir Putin presidentearen aitzinean. Errusiak 1945eko garaipena maiatzaren 9an ospatzen du, Alemania naziarekiko menia mende-baldeko herriek baino egun bat gero sinatu baitzuen. Desfilean parte hartu zuten beterrano batzuek II. Mundu Gerrako uniformeak jantzita zeuzkaten.

errusiarren buruzagi nagusi Gennadi Troxev jeneralak ziurtatu zuen, 24 orduko su-etena bat egonda ere, «Errusiako Armadak ez du Txetxe-

Beterano hauei zuzenduta, Putinek haxe adiearazi zien: «Gudukari maiteak, zuei esker dugu garaitzen ikasi eta ohitura hau gure odolean daukagu egun; garaipen militarren berme da, baina bake denboran ere sarritan baliagarria zaigu; gure belaunaldiari lagunduko dio herri sendo eta oparo bat eraikitzen eta errusiar demokrazia eta askatasunaren bandera gora altxatzen». Sobiet Batasuna desagertu denetik, komunistek ohitura daukate maiatzaren 9a

niatik alde egingo, txetxeniarrak gaizkile guztiak, hauen artean Basaiev bera, ezerezean utzi arte». Errusiar militarburuak gerrillariei aholkatu

aparte ospatzeko eta hala egin zuten atzo ere. Desfile honetan parte hartu zuten askok Joseph Stalinen erretratuak zeramatzaten.

Ospakizunak egon ziren, halaber, Minsken (Bielorrusia) eta Kieven (Ukraina), zein ere Sobiet Batasunean egondako hainbat herritan. Ezen, bai errusiarrek, bai beste populuek oroitzapen oso samina daukate II. Mundu Gerraz, guztira, Sobiet Batasuneko 27 milioi herritarrek bizia galdu baitzuten orduan.

zien «egoera argiro aztertzeke eta armak entregatzeko», haren ustez, «txetxeniarrak herria gerraz gogaituta dagoelako».

laburrean

BREITANIA

■ Sei dira McDonald'sen kontrako atentatuan auzipetuak

FRANTZIAKO Justiziak Stephane Phillippe auzipetu zuen atzo Kever eta Pornizh herrietako McDonald's jatetxeen aurkako atentatuan parte hartu zuelakoan. Auzipetutako sei lagunek ARB Breitanian Armada Iraultzailearen «gunea» osatzen zutela iritzi diote ikertzaileek. Beste zazpi militante breitaniar aske geratu dira egun batzuz atxilotuta izan ondoren.

NORVEGIA

■ Gerra ondorengo grebarik jendetsuena amaitu da

MAIATZAREN 3az geroztik greban zeuden sektore pribatuko 100.000 langileak atzo itzuli ziren lanera. II. Mundu Gerraz geroztiko lan gatazkarik gogorrena amaitu ahal izateko, patronalak onartu behar izan du bosgarren opor-astea eta aurretik eskainitakoa baino soldata igoera handiagoa.

ITALIA

■ Espetxe zigorra kendu diote Berlusconi

MILANGO Dei Auzitegiak zuriu egin zuen atzo Silvio Berlusconi Finantza Guardia sobornatze akusazioaz. Milango auzitegi batek bi urte eta bederatzi hilabeteko espetxe zigorra ezarri zion auzi horrengatik. Afera honek eta beste batzuek eragin zuten Berlusconi lehengo ministro kargua utzi behar izatea 1994. urtean. Beste hiru kondena kendu dizkiote dei auzitegiek Italiako oposiziozko liderrari.

INGLATERRA

■ Laboristek uko egin diote Londresko udal gobernuan parte hartzeari

ALDERDI Laboristako bederatzi zinegotziek uko egin diote Londresko udal gobernuan parte hartzeko eskaintzari. Neurri horretan presio egin nahi diote Ken Livingstone alkateari —laborista disidentea— hiriburuko metroa erdizka pribatizatzeke plana oztopa ez dezan. Bere kanpaina, metroak publiko izaten jarraituko zuela agindu zuen Ken Gorriak.